

Abelin Linazisoro Azkue

*Zumaia,
Gipuzkoa
(1942-2022)*

Aurkibidea

Biografia



Zumaian jaioa. Gazterik hasi zen antzerkigintzan eta ondo ezagutu zuen Zumaiaiko kultur mugimendua. 1990eko hamarkadan oso ezaguna egin zen Euskal Herri osoan, *Goenkale* telesailean parte hartu zuelako. 1995etik 2005era bitartean, hiru nobela idatzi zituen. 2004tik 2009ra bitartean hainbat elkarrizketa egin zizkien Zumaiaiko adinduei Baleike aldizkariako *Gure Zumai Zarra* atalerako eta haiek kontatutakoak xehetasun handiz eraman zituen paperera.

Zintak

ZUM-005

- **Proiektua:** Zumaiaiko hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2007-04-26
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren - Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Jadarre eta Estazio ingurukoek euskara desberdina

- **Erref:** ZUM-005/002
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:05:15. **Bukatu:** 00:06:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Arrantzale kultura eta baserritar kultura desberdinak dira Zumaian. Jadarre auzo inguruan lehen bi baserri eta etxe bat besterik ez zeuden. Hangoek hizkera desberdina zuten eta baita estazio ingurukoek ere. Beraiek "dxa" bukaerak egiten dituzte eta hangoek "ya".

Transkripzioa

- Nahi det esan, baserritar kulturak... Arrantzale kulturak eta baserritar kulturak diferentzi haundia die hemen Zumaian. Eta adibidez, ba, estazio aldekuak edo Jadarre edo Gau Txori aldekuak... Jadarre barriyua ezautzen dezue?

- Bai.

- Ba, alde hortan, ba, zeuden lehen bi baserri eta etxe bat, gehio ezer ez. Ba, hanguk ya hizketan diferente hitz eiten zien, ez gu bezela. Eta baita estaziyokuak ere bai. Guk "estadixua" esaten giñun, "estadixokuak", ezta? Haiek ya, guk "gorrixa", "haundixa", "eurixa", eta haiek "euriya", "haundiya", "gorriya", Zauztarrak bezela. O Arruakuak bezela, ezta?

- Bai. Eta Oikiyan ta holan esaten da, ezta?

- Oikiyan'e baserritarren... "Oikiya", "Oikiya", "Oikiya". Ta guk "Oikixa".

2. Marinelak karga-deskargan; arrantzaleak batelean

- **Erref:** ZUM-005/004
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:07:05. **Bukatu:** 00:09:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

Zumaian arrantzaleak baino marinela zeuden gehiago, karga-deskargan aritzen zirenak. Hauek kanpora ere joaten ziren beladun ontzietan. Arrantzaleak, aldiz, bakoitza bere batelarekin ibiltzen ziren. Bera mutikoa zela herrian 5-6 motor zeuden eta besteak batelak. Lehengo motorrak gaurkoak baino handiagoak ziren. Batelean txitxarroa, berdela, txibia... denetarik harrapatzen zen, bai amoarekin edo bai sarearekin. Lehen txibi fresko-freskoak jaten ziren etxeetan.

3. Emakumeek egiten zuten despesa

- **Erref:** ZUM-005/005
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:09:30. **Bukatu:** 00:12:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Batel asko zeuden Zumaian. Antxoatara 9-10 motor joaten ziren. Sarekadak bildu eta lehorreratzten zirenean, kanpaia jo abisu moduan eta emakumeak hurbiltzen ziren despeska egitera, hain zuzen ere, antxoak sareetatik askatzeko lana. Antxoatara gaueko 10ak aldera irteten ziren eta despeska goizeko ordu txikietan egin behar izaten zen gehienetan.

4. Kultur mugimendua; 'Centro parroquial de San Luis Gonzaga'

- **Erref:** ZUM-005/006
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:14:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:

<p>Zumaiaiko batzokia errexisatu egin zuten frankismo garaian, baina elizak berarentzat hartzea lortu zuen, eta Centro parroquial de San Luis Gonzaga jarri zuten bertan. Mutil guztiak "luistarrak" izaten ziren. Billarra, futbolina eta ping-pong-a jarri zituzten eta gazteek karta-jokoan ere egiten zuten bertan. Beste sekzio bat ere bazen: OARGI eta honek txango kulturalak antolatzen zituen. Antzerkiak ere egiten ziren. Hau mutilentzako zentroa zen eta neskak, Hijas de María, beren ekitaldiak aparte egiten zituzten.</p>

Transkripzioa

- Nik, hori, arrantza pixkat zeatuta, zuk, umiak ziñatela, kultur mugimendua herriyan ba al zeon? Ba, antzerkiya zala, musika zala, ze mugimendu zeon?
- Gu umiak giñala hemen zeonan, Batzokia zeonan lehen, eta Batzokiak zeatu in zian, Frankistak zeatu in zian, rekisatu o, beayentzat hartu ziñan.

Baiña lortu ziñan eliza katolikuak, lortu ziñan hura beretzat hartzia. Ta han ein ziñan “Centro Parroquial de San Luis Gonzaga”. Orduan danok giñun, nola danok Católicos Apostólicos Romanos nola giñan danok, ba, orduan danok giñun luistarrak, ezta? Ta luistarrentzako zeonan, Batzoki hura moldatu ziñenan, ba, billarra, futboliña eta pin-ponakin, eta geo mahaiakin. Ta mahaietan hamalau, hamabost, hamasei, hamazazpi urtekuak, o hemezortzi o zaharragok, ba, mahaietan iten ziñenan porroiakin, ardo porroiakin eta jokuan iten ziñenan. Gu gazteagok billarrian edo futbolian ibiltzen gittunan, eta moimentu hori zionan. Horrek ziñenan beste sekzio bat OARGUI izena zuna, Organización Atlético Recreativa de Guipúzcoa, eta OARGUI barruan eiten hittunan eskursio kulturalak. Ta eskursio bat noanoa, baiña zerbait helburu kulturalakin, ezta? Ba, zea ikustea, lehengo errota... este... uretako errotak o ikustea, edo... Ta holako zeak. Caballeritos de Azcoitia, Azkoitiko Kaballerituak nun eon zian, haien jauregia ikustea, haiek jakitea, haiek zer egin zuten bere garaian ta holako gauzak, ezta? Eta geo antzerkia ere bai. Eoten hunan bakarrikan... Francon garaian, antzerkiak izan behar ziñan erderaz, eta euskeraz iten ziñenan, ba, noixian behin, ba, ez dakit, lau erderaz ta bat euskeraz, o, zeoze horrela.

- Eta emakumezkuak ere eoten zian hor?
- Ez. Luistarrak hituan gizonezkuanak.
- Gizonezkuanak bakarrik.
- Gizonezkuanak, gizonezkuanak.
- Eta antzerkiya?
- Eta, antzerkia're gizonezkuana, bai. Eta emakumiak, zean, haiek, Hijas de María hittunan kolejiyuan estudiantzen zutenak eta haiek beren antzerkiak eta beren kontuak iten zizkiñenan, baiña emakumiak bakarrikan. Osea, gizona ta emakumia elkartu ezta... bueno, bueno!

5. Neska eta mutilek egindako antzerkia

- **Erref:** ZUM-005/007
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:14:55. **Bukatu:** 00:15:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Normalean neskak eta mutilak banatuta egoten ziren, baina gogoan du nola euskarazko antzerki bat batera egin zuten. Honen inguruko kontuak.

6. 'Juventud Obrera Católica' (JOC); Urruñan egindako bilera

- **Erref:** ZUM-005/008
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:15:30. **Bukatu:** 00:18:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- Aisia » Kultura

Laburpena:

<p>Kultur mugimenduak elizaren inguruko bilguneek mugitzen zituzten. JOC (Juventud Obrera Cat´lica) gazteentzako eta OAC ezkonduentzako ziren nagusienak. Behin iparraldeko eta hegoaldekoek bilera bat egin zuten Urruña inguruan. Orduko pasadizoak.</p>

7. Iñaki Beobide eta 'Jarrai' antzerki-taldea

- **Erref:** ZUM-005/009
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:18:00. **Bukatu:** 00:21:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Batzokian hilero antzerki obra bat egiten zen. Gerraostean ere antzoki parrokialean jarraitu zuten antzerkiarekin, Zumaian beti egon izan da antzerkirako zaletasuna eta. Iñaki Beobide zumaiaarra Donostiara joan zen bizitzera, eta Jarrai antzerki taldea sortu zuen bertan. Euskal gaiekin lotutako antzezlanak euskaratu egiten zituen eta arrakasta handia izaten zuten. Talde honek mugimendu handia sortu zuen, batez ere Gipuzkoan. Antzezlanak egiteko alkatearen baimena behar izaten zen, eta Zumaian antzeztu gabe geratu ziren. Bera soldadutzan zegoen garaian Laratzean sua antzezlana antzeztu zen Zumaian. 25 eguneko permisoa zuenez, bera ere zuzendariari lanetan laguntzen ibili zen.</p>

Transkripzioa

- Eta esan ziguten antzerkixa ta hamen Zumaian aspaldiko kontua dala, ez?

- Bai, zean...

- Zaletasun haundiya...

- Bai, eske batzokixan, batzokixan eiten huan ostialetan hillian behin antzerki obra bat, hillero, hillero, hillero, hillero. Baita're kantuakin'e bai, ta Jesusen Jaiotza izena zun antzerki bat huan kantatzen zana. Uste det kanta hori Zumaian bakarrik kantatzen dala, porke beste iñun ez diñat aitu. Eta geo, gerra ta geo, gerra bukau ta geo ta beste zea honekin, luistarretan, Zentro Parrokiala o hau jarri zutenian, ba, antzerkixakin segi huan. Baiña klaro, nola ezin zan euskeraz, ba, ba erderaz, ezta? Baiña beti, Zumaixak beti euki dik antzerkirako afiziyo hori ta hori. Geo martxan, Julio, zea, Iñaki Beobide hori zumaiaarra den. Iñaki Beobide Donostira jun hunan bizitzea porke hark antzerkixa hemen iten ziñan, Zumaian. Eta hura hara jun zanian, hark Jarrai antzerki taldea martxan jarri zian hark. Eta Jarrai antzerki talde hark ze iten zun? Hartu obrak Euskal Herriko arazuakin zerikusia zeukaten obrak o alemanak eo inglesak eo, ezta? Ta euskeratu eta hura eman. Eta orduan jendeak hartzen ziñan, ba, hemengo kontua bezela. Ta arrakasta, baiña, honela. Eta horren, haren, Jarraien inguruan, hemen antzerkixan moimentu haundiya sortu huan, batez ere Gipuzkuan. Bizkaian ere bai, baiña Gipuzkoan gehiago. Eta neu nola ibilita nitzan antzerkixan bai luistarretan ta geo Padres Mercedarios alu haiekin'e bai, eta orduan, ba, sartu niñun ni rollo hortan. Eta dirijitzen hasi niñun obra bat, eta ba, zeatu behar giñunian, eman behar giñunian, alkatian baimena behar izaten huan. Zeatikan orduan, ez esateatikan frankistak, ez esateatikan antzerkian kontra zeudela, euskal, euskerazko antzerkian kontra, ba, eiten ziñenan zeatu, behartu "telón de acero" bat eotia,

altzairuzko teloi bat antzokia ta jendian tartian sua eon ezkeo, ba, jeisten dana, ezta? Ta hori zeñek eukiko zin? Iñork ez. Eta lege hori esaten ziyen: “beno, telón de acero hori ba al dao?” “¿Tenéis telón de acero?” Ta, “no”. Ta ez baldin badao, “no hay autorización”. Orduan ze iten zuen alkatiak? Alkatiak iten zien beaiek beren kontura zea hartu, eantzunkizuna beaiek hartu, eta eiten ziñenan, ba, zeatu. Bueno, “nere kontura, zeuk ein antzerkia eta ni eiten naiz erantzule”. Eta Zumaiko alkatiak ez zian nahi hori in, erantzunkizun hori hartu nahi, eta izorrai, antzerkia in gabe geatu giñan. Bai, bai. Beste antzerki bat montatu hunan hemen, Zumaiko Parrokiak, guk zimitaxua deitzen diou, zuek nola deitzen diozue, zimitaxua dan zea hau?

- Bai, eliza atariyai, ez?

- Bai. Bai.

- Zimitayua.

- Zimitaxuen goian zeon lokal haundi bat. Eta han lagun kuadrilla batek montatu ziyean zea bat, antzoki bat eta han antzerki obra bat ein huan, Larratzean Sua, ta hain xuxen ni soldautzan naola. Soldautzatikan permisua euki nian hogeta bost egunekua eta nola zuzendaria laguna nun, ein niñan harei lagundu zuzentzen. Eta arrakasta haundia euki zian, bai. Bestela, beste zeikan...kultur maillan...

8. Antzerkiaren bilakaera herrian; antzerkiarekin lotutako herritarrak

- **Erref:** ZUM-005/010
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:21:30. **Bukatu:** 00:23:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>40ko hamarkadan hasi ziren erdarazko antzezlanak eta 60ko hamarkadan Jarrai taldearen sorrerarekin antzerkiaren inguruko mugimendua indartu zen. Hala ere, beraiek ez zuten aurrerabiderik izan Zumaian. Gerra aurretik ere antzezlanak egiten ziren Zumaian eta, gainera, antzezle onak omen zeuden. Antzerkiarekin lotutako herritarrak: Iñaki Beobide Jarrai antzerki taldearen sortzailea; Irene Iregi, gerra aurretik antzezten ibiltzen zen.</p>

Transkripzioa

- Mugimendu guzti hau gutxi gorabehera hirurogei, hirurogeita hamar... hirurogeian.

- Bai, hirurogei baiño lehen, antzerkixak hirurogei baiño lehenago. Oseake, gerra ondorenen, berrogeigarren hamarkadan erdarazko antzerkixak, berrogeita hamargarren hamarkadak euskeraz, guk noixian behin euskeraz batzuek. Ta hirurogei hamarkadan, ba, ya, antzerkien moimento hau in nahi izan giñin...

- Jarrai eta...

- ...guk, Jarrai eta hauek, hau dana. Eta orduan nahi izan giñin guk hor barruan sartu, baiña... Zumaixan ezin giñin, ta... “a tomar por culo”.

- Baiña lehenaotik be, gerra aurretik eta, orduan be bai Zumaixan eta bazeon holako...

- Bai, bai, bai. Bai, bai.

- Eta...

- Antzerkizaletasuna bai.

- Antzerkizaletasuna eta aktore eta aktriz, eta bertako...

- Bai, bai, bai, bai. Bertakuak eta gaiñea're batzuek esaten zien, nei esan dienez, izugarri onak ziala. Near in behar bada, near ein, ta... Ez itxurak eta kristuak! Porke, aktore txarrak gaur egunian ba al dakik ze iten duen? Zinekuak eta? Tanta bota, ezta? Tanta bota malkua zeatzeko. Baiña aktore onak near in behar bada, near in behar din. Hoi da bizitzia papela, ezta? Ba hemen materiala bada, baziok, bai.

- Ta holan, aktore ezaunik edo? Zumaiarrak eta?

- Ez, ez, ez.

- Izenik edo?

- Ez. Horrela ezaguna, ba, Jarraiko zuzendari edo Jarraiko buru izan zana, Zumaiarra, Iñaki Beobide.

- Iñaki Beobide.

- Geo martxan jarri zuena, ETB martxan jarri zanen eo, hor sartu zana produktore bezela ta. Hoixen.

- Bestela ez dezu ezautzen hirurogeita hamar larogei urteko jenderik eta ibili zana Batzokixan eta...

- Batzokixan ibili zana, e, Irene Ilegi, neska koskorretan. Hark parte hartu zian, Batzokian zeatu, entsaixatu eta Zine Amaian, Zine Amaian bota zien zean, antzerki zea, obra bat, baiña bueno, zean estilua, musikal estilua, kantuakin ta horrela, ezta? Baiña geo nola gerra etorri zan, ba dana izorratu in huan.

9. Zinerako dirua nola ateratzen zuten

- **Erref:** ZUM-005/013
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:29:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak

Laburpena:

Beti egon izan dira bi zine Zumaian. Berak 10 urte inguru zituela, itxi egin zuten zine bat; eta, 1958 inguruan, guraso elkarteak ireki zuen berriro. Abuztuan, egunero egoten zen zinea Amaia antzokian. Zinerako dirua nola ateratzen zuten: beraiek arranplan igerian ibiltzen ziren; eta, turista kanpotarrak etortzen zirenean, haiek dirua bota eta beraiek ur azpian txanponak bilatu behar izaten zituzten. Pezeta bat kostatzen zen zinea.

10. Tabernetako giroa; kantuzaletasuna

- **Erref:** ZUM-005/016
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:31:20. **Bukatu:** 00:33:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Txikiteoa egiten zen lehen. Goiko, Metro eta Justa ziren orduko tabernak. Nolakoak ziren eta nola aldatu diren. Gerra aurretik sagardotegiak ere baziren herrian. Kanturako ere zaletasun handia zegoen. Umea zela kantu asko ohetik entzunda ikasi omen zizkien parrandazaleei.</p>

11. Txakolinak edanez txikiteoa egin eta abestu

- **Erref:** ZUM-005/017
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:33:00. **Bukatu:** 00:35:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Negu aldean 09:30eko mezara joan, 10:00etan elkartu, mokadua egin, txakolina edaten hasi eta 14:00ak ingurura arte txakolina edaten egoten ziren; handik 15:00ak aldera arte bermutarekin. Taberna bakoitzean pare bat abesti kantatzen zituzten eta, beraz, txikiteoa astiro egiten zuten. Beraien kuadrilla baritonoena zen eta bazegoen beste kuadrilla bat tenorrek osatzen zutena; batzuetan elkartu ere egiten ziren. Eskolan ikasi zuten kantatzen. Abesteko zaletasun handia zegoen.</p>

Transkripzioa

- Txikiteuan gu hasten giñanian, nola danak lehen katolikuak giñan, luistarrak, ezta? Ta luistarreko komunixua hartzia, jaun hartzia, izaten huan astian behin, eo hillian behin. Hillabetian zenbagarren... aurrenengo igandea o ze izaten zan? Orduan, komunixo hartzea jun eta beatzi t'erditan, hamarretan bukatu ta etxian pastela jatea jun. Pastela jan ta geo [Etxabe Kuartonea] txakoliña eatea. Hasi, bueno, hori komunixua zanian, eta ez zanian ere, ba!, han nunbait, normalian, juten, ez bagiñan juten mendira, mendira're ibiltzen gitxuan, gitxunan. Mendira behin hamasei hamazazpi urtekin bastante. Baiña bestela hemen, negu aldian, beatzi t'erditako mezeta jun, hamarretan juntatu, mokao txiki bat in o zeoze in, zeoze pikatu, txakoliña eaten hasi, ta hirurak laurden gutxi erten. Ordu bi t'erdiak arten txakoliñakin. Eta ordu bi t'erditatikan... ez! Ordu biak arten! Ordu biak arten txakoliñakin. Ta ordu bitatik hirurak arten, bermutakin. Baiña kantatu asko eiten giñin. Eta orduan, taberna bakoitzian kantu bat o bi. Eta orduan ean'e, hainbeste ez. Hainbeste're... Jope! Bestela... Eta guk adibidez, gure kuadrilla zea hunan, baritonuak o... Boza tenorra ez, baritonuak. Eta beste kuadrilla bat zionan gu baiño zaharro zianak, gu baiño lau urte zaharro eo horrela. Haiek zian gehienak tenorrek. Eta orduan ze iten giñun? Igual bi kuadrillak juntatu ta ba!, kriston orfeoia. Eta ondo, e! Ez desafinatuz [...], eta bi bozetan eta... Bai, bai, bai! Guk ikasi giñenan kantatzen eskolan. Ez Padre Mercedaio hoiek, hoiek hitxunan ezer ez. Baiña gizon bat ekartzen ziñenan guri erakusteko kantatzen. Eta harek guri erakutsi zigun kantatzen. Geo desafinatzen eta, boza eusten, boza eusten beti. In gabe "aaaaaaaaaaaa" ein gabe, beti eusten, eusten boza ta. Harkin ikasi geniyan kantatzen, bai. Ta geo tabernako kantariak Zumaixan, o!, oso onak.

- Bestela etxian ta lagun artian ta kantuak izango zian, danian, ez?
- Bai, bai, danian, danian. Itxian'e bai, itxian'e kantatzen giñan. Ba, zeozarren festa baldin bazan, kopatxua hartu ta kantari.

12. "Gau-txori" tabernara abestera

- **Erref:** ZUM-005/018
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:35:25. **Bukatu:** 00:36:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Herritar batzuk igandean bazkalostean Gau-txori tabernara joaten ziren abestera. Herritik aparte zegoenez, han lasai abesten zituzten euskarazko kantuak (bestela karlistek kontra egiten zieten) eta ordu askoan aritzen ziren kantuan. Bixente Iskiña zen hara joaten zenetako bat; abesti ugari omen dakizki.</p>

13. Jende guztia kolean; emakumeak txikiteoan

- **Erref:** ZUM-005/019
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:36:30. **Bukatu:** 00:38:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Aurreragokoek, txikiteoa egin beharrean, mahaian eseri porroiarekin eta orduak egiten zituzten taberna batean. Gerrarekin aldatu zen ohitura hori. Lehen jende guztia kolean egoten zen eta telefono mugikorrik ez zegoenez, norbait aurkitu nahi izanez gero, bila joan behar izaten zen. Emakumeak txikiteoan noiz hasi ziren. Honen inguruko anekdota.

14. Dantza lotua aspalditik onartuta Zumaian

- **Erref:** ZUM-005/021
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:39:20. **Bukatu:** 00:40:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Bere amak 14 urte zituenerako mutilekin lotuan dantza egiten omen zuen. Hijas de María kongregaziotik botako zituzten mehatxuak-eta izaten zituzten, baina kontu horiek laster galdu ziren.</p>

Transkripzioa

- Adibidez, hemen gure amak eta beti dantzan ein zien mutillakin. Gure amak kontatzen zin hamalau urtekin hasi zala hura mutillakin dantzan iten.

- Agarrauk.
- E?
- Agarrauk.
- Agarraua, bai, bai. Mutillak bai, bai, helduta, helduta dantza egiten, hamalau urtekin. Eta geo, harrezkeo'e, gu mutil koskorak giñala, ba, mundu guztiak dantza iten zian. Hijas de Mariatikan bialdu ingo zituela ta esaten zien, ta batzui inportik ez, eta. Bueno, batzuek zaintzen zien, nola bialdu iten zituzten kongregaziotikan neskai ta mutillakin dantza egin ezkeo, ezta? Baiña laster jun hunan hori pikuta, ta dantza normal iten hunan. Bai, bai. Dantza askotan, eta zinia eta playa, playa're bai.

15. Turistak Itzurungo hondartzan; bikinien hasiera

- **Erref:** ZUM-005/022
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:40:00. **Bukatu:** 00:41:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Santiagoko hondartzara azkoitiar eta azpeitiarrak joaten ziren eta Itzurungora hotel Amaiako turistak. Berak 6-7 urte zituela turista bat bikinian egoten omen zen hondartzan eta ume-koskorak haren inguruan trenarena egiten ibiltzen ziren hura ondo ikustearren. Berak 16-17 urte zituela hasi ziren bikini gehiago ikusten, kanpotarrentzat normalagoa izaten zen eta.

16. Hondartza batzuetan "txaperoa" nesken bainujantzien luzera zaintzen

- **Erref:** ZUM-005/023
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:41:55. **Bukatu:** 00:44:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Zumaian nahiko aurreratuak ziren bikinia onartze kontuan. Berak 13 urte inguru zituela Bilbora joaten zen osaba-izebengana. Behin lehengusuekin inguruko hondartza batera joan ziren. Hondartzan zaintzailea (aguazila, "txaperua") zebilen neskek ia belauneraino dena tapatuta izan zezaten. Lehengusuek ez zieten sinesten Zumaian turistak bikinian egoten zirenik. Itzurungo hondartzan ez zen egoten "txapero"rik, baina Santiagokoan bai.

Transkripzioa

- Eta debekurik eta ez zeon?
- Hemen ez, hemen ez. Pentsa zak, guk hamabi urtekin jun gaitxuk lehengusua eta biyok Bilbora, ba, bi aste pasatzea, hango izeko ta osaba batzuen etxea. Guk giñazkan, ba, zazpi o zortzi etxe, lehengusuak, osaba, izeko, eta bueno. Horrela iten giñian egun bakoitzian paga kobratu, bixita in, paga kobratu ta

barraketan ta ibiltzeko, ta zinia ikusteko ta horrela. Ta egun batian, Deustuko lehengusu batek esan ziuk: “Hi, guazen plaira!”. Erderaz, ez zekiñan euskeraz. Geo haren, haien, osea, gure osaban ta izekon umiak… Nik zeuzkanat bat, bi, hiru, lau etxe, lau etxe, bi azkuetar ta bi linazisorotarren aldetikan. Ta haien ume danak, ia gehienak, ez zekien euskeraz. Ta beaiek beren umiai danak euskaldundu in dixkie, beaiek euskeraz ikasi ez baiña beaiek umia euskalduna in. Bueno, ba, lehengusu honek, “Hi! Guazen zea, ikustea plaira!” […], nungua zan, o Getxokua zan o nungua zan, ez nauk gogoratzen. Kontua da, trena hartu giñula ta jun giñala. Eta gu plaira, jode!, egunero plaian ibiltzen giñun, egunero-egunero-egunero. Eta bueno, guazen ba, ilusiyua iten baio beonei… Eta hamahiru urtekuak gu biyok. Eta jun gaitxun, ta. Taka! Ipini gaitxun petrillian plaia ikusten, eta txapero bat ibiltzen hunan zaitzen emakumiak zeakin izterrak ondo tapauta eukitzeko. Ta kulero estiloko trajebañua baldin bazuten, euki behar izaten ziñenan toaja bat lotuta gerriyan, iya belauneaiño tapauta eoteko. Eta bestiak ziñenan trajebañua gonakin, gona, iztar erdiraiño gonakin trajebañua. Orduan txaperua ibiltzen huan goitikan behera plaian pasiatzen. Ta txaperua urrutira jutun zanian, toaja zeukatenak ze iten zienan? Kendu, kendu toaja ta etzan eguzkia hartzeko. Ta gure lehengusu honek “¡Mira, mira, mira qué buena estáesa!”, “Mira, mira, mira qué buena estáesa!”. Ta gu, “jode! ¿Esa tía? ¡Si en Zumaia hay bikinis!” Eta ez zian sinisten! Nola sinistuko ziyen, ba! Han horrela ta Zumaian bikiniyakin! Eta gu, jode!, gu sendauta ya, ikusten, bueno!, ohituta.
- Horretan turismuak eta, frantsesak eta izatiak, ez?
- Bai, bai, bai.
- Eragiña hori izango zan.
- Frantses asko ta orduan, ba, eragin haundiya. Gu ohitu, ya ohitu iten haiz.
- Itzurungo hondartza ixkutu xamarrian dao baita’re, ta…
- Bai.
- Igual’e errexo pasa!
- Hara ez hittunan ez txaperuak ta jutun, ta ez ezer ez. Ta hemen uste diat ibiltzen ziala txaperuak, Santixon.
- Zarautzen bai behintzat!
- Santixon uste diat ibiltzen ziala. Baiña han! Ta ondo. Hor konpon!

17. Arrauna kirol garrantzitsuena Zumaian

- **Erref:** ZUM-005/025
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:45:30. **Bukatu:** 00:47:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Zumaian egiten ziren kirolak. Arraunean pikea egoten zen zumaian eta zarautzarren artean. Futbolean plaieroak jokatzen ziren. Garai batean atletismo inguruko talde bat sortu zen eta haiek lehiaketak antolatzen zituzten. Arraunak izan du indar gehien Zumaian. Arraunlariek lan egin ostean entrenamendua egin eta gero txuleta jaten zuten. Traineruarekin ("triñauakin") Kontxarako bakarrik prestatzen ziren.

Transkripzioa

- Zumaian kiroleako zaletasunik izan al da? O ze kirol horrela…

Arrauna edo?
- Zumaian arrauna. Arrauna ume-umetatikan nik ezautu diñat. Bai. Orduan, garai hartan, zarautzarrai irabazi ezkeo, gustoa. Bai!
- Hor eoten zan pikia, ezta?
- Bai, pikia, pikia eoten hunan zarautzarran ta zumaiaarran artian. Bai. Arrauna, futbola plaieruak.
- Baita’re?
- Bai, futbola plaieruak. Eta geo, garai bat izan hunan hemen, talde bat ein ziñan zean aldekoa, atletismuan aldeko talde bat sortu hunan. Bar Cantábrico izena zun taberna batian iten ziñen billera. Ta tarteko bat nere anai bat hunan, anai zaharra. Eta haiek antolatzen zixkiñen ya zeak, salto de altura, salto de longitud, zea, jaurtiketa, pisuen, bolen jaurtiketak eta beno, atletismoko zeak. Eta ba, politta izaten hunan.
- Baiña arraunak euki du hemen indar haundiya, ez, herriyan?
- Arraunak, arraunak, bai, bai. Bai, bai. Gu umetan juten gitxunan ikustea arraunlaiak nola ertetzen zuen barratikan aurea, ezta? Ta geo, bueltakuan, iten giñenan, saltaka, zeatikan, iya-ia barratikan, arranplaiño zeakin, triñauakin batea, tiki-taka, tiki-taka, tiki-taka. Bai, beaiekin batea. Hori zortzi o beatzi urtekin, bai. Ta geo ikusi ze gimnasi klase iten zun [...]. Ez hitxunan entrenatzen! Allatzen zanian agostuan, arraunian egunero erten, taillarrian lana in ta geo. Arraunea egunero erten, gimnasia egin, ta txuleta jan eta punto! Ta gehio ezer ez!
- Ta geo, sapatuan o domekan, jaian, izango zan holako karreraren bat, eo, ez? Estroparen bat, eo?
- Ez. Beti preparauta Kontxako!
- Bakarrik Kontxan?
- Kontxan. Bai, bai, Kontxan.
- Bakar-bakar-bakarrik?
- Hemen bai. Hori triñauakin, e! “Trainerua”, zea, zuek “trainerua” esaten dezue? Guk “triña” esaten diñau. Triñauakin, zea, iten huan Kontxako.

18. Bestelako regatak: batelak, txanelak, tiñak, trainerillak

- **Erref:** ZUM-005/026
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:47:35. **Bukatu:** 00:50:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

Laburpena:

Traineruarekin ("triñauekin") Kontxarako bakarrik prestatzen ziren. Beste ontzi mota batzuekin ere egiten ziren regatak: batelak, txanelak, tiñak... "Tiñaren inguruko azalpenak; lagun bakarrarekin egiten zen. Txanelean binaka egiten zen. Trainerillak ere izaten ziren. Honen inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- Zea, ite huan Kontxarako, baina bestela, hemen, hemen bertan izate hituan zeak... arraunian, batelenak.
- Batelak.
- Bai, lau lagun eta... lau lagun eta zea, patroia. Eta tiñenaáre bai. Tiña ta txanelaáre bai. Txanelak dituk e... txalupak hemen, erditikan zea... bukaera zeauta daukenak, ebakita daukatenak. Hoiiek dittuk txanelak. Txanelen regatak. Tiñenáre bai... Tiña, tiña den... barrikak... e... zertako erabiltzen zian? Barrika haundiyak, fabriketan ibiltzen zianak e... eozertako o sardin zaharrentzako, ez naun akordatzen! O tintatzeko gauzak o... Tiña zeatik deitze zan ba... Hoitan sartu, arrauna bakarrakin, ta, klaro, arrauna bakarrakin oso zaila

dek eamatia kupel borobil bat aureaka. Eta batzuek bahituan juaten zianak taka-taka taka-taka aureaka. Eta beste batzuk, ba, buelta, izin eramane aureaka.
- Eta bakarra. Lagun bakarra.
- Lagun bakarra. Tiñan, lagun bakarra.
- Baiña hori ze izaten zan, zuen arteko...
- Ba, herri arteko...
- Gaztien...
- Gu baiño zaharro, gu baino zaharro. Gu ez. Guk ez giñian ikasi hori.
- Eta txaneletan? E...
- Igual-igual. Zean bezela, arraunian...
- Eta hori ere bakarrik edo biñaka edo...?
- Biñaka, uste diat, bai. Eta bestela, lau, lau arraunlai eta patroia.
- Bateletan?
- Bateletan. Eta hor egoten hituan... Eta gero baita´re... onea trainerillak´e bai izate hitunan hemen zeak, estropak, Zumaian. Eta ite ziñenan moillatik erten zubi haundiyan buelta in, eta eztaikit bi buelta o zenbat izate zian. Lehen, moilla honeauntzo zionan. Oin moilla harauntzo eamanda zion, baina honantz. Eta zubi haundiyan, oin nola dao zuba paseoko pintauta gorriz? Ez, ez karretera dana baizik honeauntzo daon zubiya? Donostia ertentzeko bidian... Hor zeok zubi bat karretara dana, eta honeauntzo pixkat zeok zubi bat gorriz pintauta. Karretara hori huan lehen. Orduan, hor ziaboga hor ite huan, eta, gero, moilla alde hontan beste bat. Bi buelta uste det /ustet/ izaten ziala. Hiru ziaboga edo. Eta orduan, orixotarrak, zaraustarrak, hondarrabitarrak, sanjuandarrak... Danetikan etortzen hituan, bai.
- Batzuetan hona, eta, gero, hamenguak beste batzuetan...
- Gero hemenguak hara, bai. Hoiek trainerillak e, trainerillak hori.
- Eta traineretan ez, orduan? Ez zan izaten...
- Ez, triñauetan Kontxa bakarrik.
- Kontxa bakarrik.
- Bai, bai. Orduan, ez zeon /etzeon/ besteikan.

19. Zumaian gertatutako pasadizo tamalgarria

- **Erref:** ZUM-005/028
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:51:10. **Bukatu:** 00:53:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Zumaian gertatutako pasadizoa. Barku batek moilara sartu behar zuela eta, eskola profesionaleko mutiko batzuk barra muturrera joan ziren korrika. Olatu handi bat etorri eta 7-8 mutikoak itsasora bota zituen; denak ito ziren, bat izan ezik. Bizirik atera zen mutikoa nola salbatu zen; inguruko enpresa bateko semeak (alemaniarra bera) atera zuen uretatik, soka bat lotuta zuela, uretara salto egin ondoren. Zumaian itotakoak korronteak beti Getaria aldera eramaten omen ditu.

20. Moilan eta inguruetan izandako aldaketak

- **Erref:** ZUM-005/030
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:54:00. **Bukatu:** 00:58:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Moilan egin izan diren aldaketak. Orain Amaiako plaza dena lehen moila zen eta barkuak sartzen ziren bertaraino. Gero moila hori bete eta moila haruntzago jarri zuten. Honen inguruko azalpenak. "Eskoillera" (malekoi) ingurua ere desberdina zen, askoz irekiagoa. Moilan eta Narrondo ibaiaren inguruan hondoko basa kendu egiten zuten, ahalik eta sonda (sakonera) handiena izan zezaten. Kargako barkuak sartzen ziren haraino.

21. Herrian izandako aldaketak; lehenbiziko aldaketa inportantea Aitamari ingurukoa

- **Erref:** ZUM-005/031
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:58:05. **Bukatu:** 01:01:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Zumaia asko aldatu da; lehen kasko zaharra bakarrik zegoen: San Telmo kalea, goiko dorrea, kasko zaharra, Erribera kalea eta gero moila; besterik ez zegoen. Lehen inguru batzuetan ez zegoen etxerik, ezta baserririk ere. Baserriak geltoki aldera eta Jadarretik gora edo Arritokietatik gora zeuden. Aldaketa handiena Aitamari ingurua aldatzean hasi zen. Lehen Aitamari inguruan erribera zegoen, baratzeak, beraiek "luakixak" deitzen ziotena. Inguruan zeuden erakinak. Aitamari egin zutenean eta ingurua bete zutenean hasi zen aldaketa handia, baina horren ondoren denean hasi ziren etxeak egin eta egin.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com